

2026



JARRAIBIDE EKONOMIKOAK

EAEko 2026ko Aurrekontu
Orokorrak egitea

DIRECTRICES ECONÓMICAS

Elaboración de los Presupuestos
Generales de la CAE 2026

Indizea

1. Aurkezpena	4
2. Euskadiren 2025-2026rako egoera makroekonomikoa	5
Mundu-mailako eta Europako testuingurua.....	5
EAEko ekonomiaren egoera eta ikuspegiak, 2025ean eta 2026an.....	9
3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko esparrua 2026ko aurrekonturako	13
4. Gobernu-lanaren estrategia eta ardatz nagusiak	15
5. Aurrekontuen alorreko jarraibideak	16
Lehenen: Diru-sarrerak.....	16
Bigarrenen: Langileen gastuak.....	16
Hirugarrenen: Funtzionamenduko gastuak eta transferentzia korranteak	16
Laugarrenen: Inbertsio errealak, kapitaleko dirulaguntzak eta finantza-aktiboen aldaketa	17
Bosgarrenen: Finantza-gastuak eta finantza-pasiboen txikiagotzea	17
Seigarrenen: Sektore publikoko erakundeak	17

1. Aurkezpena

2026. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoek Aurrekontu Araubidearen Legean ezarritakoari erantzuten diote.

Jarraibide hauei esker, aurrekontuak zein testuingurutan egiten diren uler dezakete sailek eta gastua kudeatzen duten zentroek, eta, bide batez, argibide garbiak eskaintzen dira aurrekontuoi eman nahi zaien eduki ekonomikoari buruz.

Aurrekontuak jaurlaritzaren politika ekonomiko eta finantzarioa islatzen du, eta lotura estua dauka Jaurlaritzaren helburuekin eta ardatz estrategikoekin, bai eta kasuan kasuko eremu sektorialekin ere. Ikuspuntu horretatik, aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoak funtsezko atala dira estrategia-planak-aurrekontua katean.

Beraz, jarraibideak biltzen dituen agiria bost ataletan egituratzen da. Sarrera labur honen ondoren, bigarren atalak EAEko egoera makroekonomikoa aurkezten du 2025-2026rako, Espainiako eta nazioarteko ekonomietarako proposatutako eszenatokiak kontuan hartuta. Hirugarren atalean zehazten dira, bestalde, Europar Batasunaren aurrekontua egonkortzeko esparru berriak 2026ko aurrekontua egiteko orduan dituen inplikazio nagusiak eta aurrekontu-zorroztasuna mantendu eta gobernu onaren tresnak aprobetxatzearen garrantzia. Laugarren atalak Eusko Jaurlaritzaren XIII. legealdirako zehaztu diren ardatz estrategikoak deskribatzen ditu. Ardatz horiek, era berean, legealdiaren hasieran zehaztutako helburuak betetzeko oinarriak finkatu behar dituzte 2026ko aurrekontuaren bidez. Azkenik, aurrekontuak egiteko jarraitu behar diren aurrekontu-jarraibide teknikoak jasotzen ditu bosgarren atalak.

2. Euskadiren 2025-2026rako egoera makroekonomikoa

Mundu-mailako eta Europako testuingurua

Ameriketako Estatu Batuetako gobernu berriak paradigma aldatu dezake nazioarteko merkataritzan. Izan ere, merkataritzako-trukeen bolumena murrizteko mehatxua egin du, muga-zergen igoera handiak tarteko. Nazioarteko Diru Funttsaren (NDF) azken aurreikuspenen arabera, mundu-mailako merkataritzaren hazkundera 2025ean % 1,7koa izango da eta 2026an % 2,5ekoa. Hau da, 1,7 eta 0,9 puntu jaitsiko da iazko urriko aurreikuspenen aldean (2024an % 3,8ko igoera egon zen). Horren ondorioz, hazkunde ekonomiko globalak ez du lortuko % 3,0ko hazkunde-tasara iristerik 2025ean, eta gorabidean dauden ekonomia batzuek, hala nola Txinak (-0,5 puntu, urriarekin alderatuta) eta Mexikok (-1,6 puntu), muga-zerga berrien inpaktu handiagoa jasango dute, beste ekonomia aurreratu batzuek bezala, besteak beste Kanadak, Erresuma Batuak eta Japoniak, merkataritza-lotura handiak baitituzte Ameriketako Estatu Batuekin. Martxoan, ELGak kalkulatu zuen epe ertainean trukeen bolumena bi hamarren murriztu zitekeela Estatu Batuek ezarritako muga-zergaren puntu bakoitzeko (zeinari, errepresalia gisa, igoera baliokidearekin erantzun baitzaio). Guztira, ekoizpen globala hiru hamarren inguru murriztu liteke hirugarren urtean, eta prezioen maila 0,4 puntu gehiagoko batez besteko erritmoan igo liteke hurrengo hiru urteetan.

ELGak martxoan hasi zuen Estatu Batuetako hazkunderako beheranzko berrikuspenen segida, % 2,2raino, eta, era berean, inflazioaren aurreikuspena zazpi hamarren igo zuen, % 2,8raino, 2024ko inflazioa (% 2,5) gaingituz. Berrikuspen horren ondoren, are negatiboagoak izan diren beste batzuk egon dira, hala nola NDFrena, zeinak 2025ean % 1,8ko hazkundera eta % 3,0ra iritsiko den inflazioa aurreratzen baititu. Nabarmenago, Consensus Forecast-en maiatzeko panelaren batez bestekoak AEBetako ekonomiaren hazkundera % 1,2an kokatzen du, eta inflazioarena % 3,1ean; hau da, berrikuspenaren arabera, puntu batekoa da hazkunde-tasa eta lau hamarrenekoa prezio-igoera duela hiru hilabete espero zenaren aldean.

Erreserba Federalaren proiektzioen arabera, oraingoz, inflazioa % 2,7 haziko da, 2025ean, eta, % 2,2, 2026an. Aldiz, ezkorragoak dira jarduera ekonomikoari dagokionez, % 1,7ra mugatzen baitute produkzioaren hazkundera 2025ean. Urteko lehen hilabeteetako kanpo-merkataritzaren datuek aurreratu bezala, urteko lehen hiruhilekoko hazkundera zertxobait negatiboa izan da, inportazioen muga-zergen iragarpenak eragindako aurrerapen-efektuaren ondorioz (muga-zerga horiek ez ziren inbentario-gehikuntza gisa islatu). Alderdi hori etorkizunean berrikus badaiteke ere, AEBetako ekonomiak bigarren hiruhilekoan izan duen bilakaerak gora egin beharko luke eragin beragatik, ez baitago, oraingoz, ahultasun-zantzurik barne-kontsumoan.

AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Urte arteko aldakuntza-tasak

	BPGa			Kontsumo-prezioak		
	2024	2025	2026	2024	2025	2026
Mundu-mailako ekonomia	2,7	2,1	2,3	3,8	3,0	2,6
AEB	2,8	1,2	1,5	3,0	3,1	2,8
Kanada	1,5	0,8	0,7	2,4	2,2	2,1
Japonia	0,1	0,8	0,6	2,7	2,8	1,6
Eurogunea	0,9	0,9	1,1	2,4	2,0	1,8
Europar Batasuna	1,2	1,0	1,4	2,8	2,2	2,0
Alemania	-0,2	0,0	1,2	2,3	2,1	2,0
Espainia	3,2	2,4	1,8	2,8	2,4	1,9
Frantzia	1,1	0,6	0,9	2,0	1,2	1,6
Herbehereak	1,0	1,2	1,2	3,3	3,2	2,5
Italia	0,7	0,5	0,7	1,0	1,8	1,7
Erresuma Batua	1,1	0,8	1,0	2,5	3,0	2,3
Aisia Pazifikoa	3,8	3,5	3,4	1,6	1,5	1,6
Ekialdeko Europa	3,2	2,5	2,6	14,7	10,3	7,3
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,2	2,0	2,1	12,7	8,4	6,3

Iturria: Consensus Forecasts (2025eko maiatza).

Ziurrenik, Europar Batasunak muga-zergen bidez erantzun beharko dio Trumpen merkataritza-politikari, Munduko Merkataritza Antolakundearen arauen arabera. Halaber, bigarren txandako ondorioak ere jasan ditzake. Izan ere, AEBko gobernuak, merkataritza-defizita murrizteko borrokan, murrizketa handiak ezarri dizkie Txinako produktuei, eta, horrenbestez, murrizketa handienak dituzten horiek Europako merkatuetara desbideratu daitezke, batez ere altzairuaren kasuan, mundu mailan gehiegizko gaitasuna baitago.

Europako ekonomiak susperraldi apala izan du urteko laugarren hiruhilekoan Europar Batasuneko ekonomiaren hazkundeak gorantz egin ondoren, hiruhileko arteko % 0,4raino, eta, ondoren, urteko lehen hiruhilekoan jarduera % 0,3 hazi ondoren. Neurri handi batean, Irlandako eta Danimarkako ekonomien berezitasunek eta aldakortasunak baldintzatutako datuak dira. Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, Erkidegoko ekonomiak % 1,1eko hazkundea izango du, 2025ean, eta, % 1,5ekoa, 2026an, hau da, joan den udazkenean aurreikusitakoa baino lau eta hiru hamarren gutxiago. Europako Banku Zentralaren azken aurreikuspenetan –interes-tasak % 2,5eraino murriztuko direla babesten dute–, moneta-arlorako hazkundearen estimazioa bi hamarren murriztu da berriro, bai 2025ean (% 0,9), bai 2026an (% 1,2). Gainera, inflazioaren aurreikuspena beste bi hamarren

igo da, % 2,3raino, energiaren garestitzearen eta euroaren balio-galeraren ondorioz, baina truke-tasen bilakaerari buruzko ziurgabetasuna handia da.

Europako ekonomia nagusien egoera oraindik ez da positiboa, batez ere Alemaniaren kasuan. Aurreikuspen-erakunde guztiek, Alemaniako gobernuak berak barne, 2025erako aurreikuspenak beherantz berrikusi dituzte, eta aribidean den urterako hazkunde apenas positiboa zenbatetsi dute, 2024an jarduera % 0,2 jaitsi ondoren. Industria-produkzioaren hazkundearen aurreikuspenak jaisten jarraitzen du, eta dagoeneko eremu negatiboan dago (-% 0,7), Consensus Forecast-en panelaren batezbestekoaren arabera. Nabarmentzekoa da Alemaniako industria-produkzioaren indizea, 2024an, 2018an lortutako maximoa baino % 14,6 txikiagoa izan zela. Duela gutxi 500.000 milioi euroko zerga-pakete bat onartu da inbertsioetan, aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauak malgutzea dakarrena. Horrek industriako sektore ahulenetako batzuk suspertzen lagun dezake. 2026an, hazkundearen nolabaiteko normalizazioa espero da (% 1,2), baina Estatu Batuetara egiten diren automobil-esportazioen muga-zergen mehatxuak egoera hori arriskuan jartzen du, prezio energetikoen bilakaeran inflexio-puntu bat gertatzen ez den bitartean.

2024an % 3,2 hazi ondoren, Espainiako ekonomiak hazten jarraituko du 2025ean eta 2026an, Europako gainerako ekonomia nagusien bilakaerarekin bat ez datorren erritmoan (% 2,5 eta % 2,1, hurrenez hurren), Ceprede-ren aurreikuspenen arabera. Hala egingo du, 2024an bezala, barne-eskariaren bultzadari esker (% 2,9), azken hiru urteetako kanpo-eskariaren ekarpen sendoak atzean utzita (2,3 puntu 2022an, 1,0 puntu 2023an eta 0,4 puntu 2024an). Inflazioa txikiagoa bada, kontsumo pribatuak % 2,8 egin ahalko du gora, nahiz eta enpleguaren hazkundea (% 1,7) eta soldata-errentena 2024koa baino txikiagoa izan. Espainiako lan-merkatuaren dinamismoa 2025 eta 2026ra hedatuko da, eta biztanleria aktiboa % 1,0tik gora igotzea espero da bi urteetan; langabezia-tasa, berriz, % 10,8ra jaitsiko da aurren, eta % 10,4ra datorren urtean.

Espainiako Bankuak hazkundeari dagokionez egoera baikorragoa aurreikusten du 2025ean (% 2,7), eta pixka bat txikiagoa 2026an (% 1,9), uste baitu Espainiako ekonomia bere ahalmenaren gainetik hazten ari dela eta bere ekoizpen-arrakala leheneratuko duela. Proiekzioen ekitaldi berrian, bankuak gainbegiratzeko erakundeak ere lau hamarren igo du inflazioaren zenbatespena (% 2,5era arte), energia-prezioen etorkizuneko gorabeheren ondorioz, nahiz eta azpiko inflazioaren bilakaera hobea espero duen (% 2,2). Beste erakunde batzuen aurreikuspenek 2025ean egoera ona izango dela uste dute. Horren barruan, BBVA Research erakundeak kalkulaturako % 2,8tik Funcas fundazioaren azken aurreikuspenen % 2,3ra bitartekoak daude; 2026rako, berriz, hazkunde txikiagoa espero da, % 2 baino apur bat baxuagoa.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2025eko otsaila)

Urte arteko aldakuntza-tasak

	2024	2025				2025	2026
		I	II	III	IV		
BPGa	3,2	3,1	2,6	2,3	2,1	2,5	2,1
Kontsumo pribatua	2,9	3,1	2,2	2,0	2,1	2,8	2,2
Kontsumo publikoa	4,9	4,0	3,9	2,0	2,0	3,0	2,0
KFEGd-a	2,3	3,3	3,2	5,3	2,5	3,6	3,3
- Taldeko inbertsioa	2,3	7,0	6,5	7,4	-0,2	5,1	3,1
- Landutako aktiboen inbertsioa	5,8	4,7	3,8	3,0	2,5	3,5	2,1
- Eraikuntzako inbertsioa	2,6	1,4	1,7	4,6	3,9	2,9	3,3
Barne-eskaria	2,9	3,6	3,3	2,7	2,1	2,9	2,3
Esportazioak	2,9	2,3	2,8	3,0	3,6	2,9	2,4
Inportazioak	2,0	3,9	4,7	4,2	3,8	4,1	3,1

Iturria: Cemprede.

EAEko ekonomiaren egoera eta ikuspegiak, 2025ean eta 2026an

Hipotesi berrien arabera –ziurgabetasun handia dute– interes-tasa (hiru hilabeterako euriborra) txikiagoa izango da 2026ra bitartean duela hiru hilabete aurreikusitakoa baino, euroaren herrialdeetako inflazioaren moderazioagatik. Dolarren eta euroaren arteko truke-tasari buruzko hipotesiek aurreikusten dute 1,10era igoko dela 2026ko laugarren hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, Ameriketako Estatu Batuetako inflazio-aurreikuspen berriek FED funtsak agintzen duen interes-tasaren eta EBZak ezartzen duenaren arteko aldea handitzea eragin dezakete. EAEko ekonomiaren esportazio-merkatu nagusiei dagokienez, Espainiako ekonomiaren hazkundera baino ez da berrikusi, eta haren jarduerak gorantz egiten jarraitzen du, harritzekoa bada ere. Inflazioa ez denez espero zen mailara jaitsi, Espainiako kontsumo pribatuaren deflatorea ere gorantz berrikusi da.

EAEko ekonomiaren aurreikuspenen arabera, BPGa % 2,1 haziko da 2025ean eta % 1,8 2026an, hau da, hamarren bat gehiago urte bakoitzean, aurreko aurreikuspenekin alderatuta. Erabilitako hipotesietan egondako aldaketa txikiez gain, gorakadaren iturri nagusia aurreikusten den barne-eskari indartsua da (% 2,3), bereziki kontsumo pribatuaren hazkunde handiagoagatik. Kontsumo-itxaropenen hobekuntza hori hiruhilekoko kontabilitatearen azken berrikuspenaren ondorio da; izan ere, 2024ko lehen hiru hiruhilekoetan, etxeetako kontsumoaren hazkundera hasieran argitaratutakoa baino lauzpabost hamarren altuagoa izan da. Aitzitik, eta eragin positibo horri aurre eginez, kanpo-eskariaren ekarpena negatiboa izan zen urteko azken hiruhilekoan, eta EAEko ekonomiaren jardueraren hazkundeari hiru hamarren kendu zizkion. Emaitza hori aurreikusitakoa baino negatiboagoa da, eta, beraz, EAEko esportazioen hazkundera 2024an ia nulua izan da. Ondorioz, aribidean den urterako aurreikuspenak murriztu egin dira.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2025eko martxoa)

Urte arteko aldakuntza-tasak eta mailak

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
Euribor (hiru hilabete)	2,5	2,4	2,4	2,3	2,4	2,2
Dolar eta euroaren arteko truke-tasa	1,042	1,053	1,064	1,075	1,058	1,104
Espainiako BPGa	3,1	2,6	2,3	2,1	2,5	2,1
ELGAko BPGa	1,7	1,8	1,9	1,9	1,8	1,8
Euroguneko BPGa	1,3	1,4	1,3	1,3	1,3	1,4
Konts. prib. deflazioa (Espainia)	2,2	2,1	2,9	2,4	2,4	2,3
Ondas. esport. deflazioa (Espainia)	1,7	0,7	0,8	1,4	1,2	1,9

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala. Datuak eta hipotesiak ixteko data: 2025eko martxoaren 7a.

Barne-eskariaren bultzada funtsezkoa izango da EAEko ekonomia berriz ere % 2,0tik gora hazteko 2025ean. EAEn urteko hasierako tartean inflazioak gora egin duen arren, Europan prezioei gehiago eusten bazaie interes-tasak murrizten jarraituko dute, eta, horrela, kontsumo pribatua % 2,3 haziko da. Enpleguaren hazkundera aurreko urtekoa baino txikiagoa izango dela aurreikusten bada ere, errenta erabilgarri agregatuaren hazkundera duen eragina soldata-presio handiagoak konpentsa dezake neurri batean; izan ere, langabezia-tasa % 7tik beherakoa izan da urtearen zatirik handienera, eta produktibitatearen itxurazko igoera duela gutxiko batezbesteko historikoarekin bat dator. 2026an, lan-merkatuaren hazkundera ez da hain handia izango, eta interes-tasek egonkortasun handiagoa izango dute; beraz, kontsumo pribatuaren hazkundera % 1,7ra mugatuko da. Aurreikuspenen ekitaldi berri honetan, oraindik ere kapital-eraketa gordinaren igoera (2025ean % 2,6 eta 2026an % 2,5) handiagoa aurreikusten da ekoizpen agregatuaren hazkundera baino, bai ekipo-ondasunetan, bai beste aktibo batzuetan (eraikuntzak barne), inguru instituzionalak eta finantzaketa-baldintza hobeek bultzatuta.

EUSKAL EKONOMIARAKO HIRU HILEROKO AURREIKUSPENAK (2025eko martxoa)


Urte arteko aldakuntza-tasak

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
BPGa	1,9	2,1	2,1	2,0	2,1	1,8
Azken kontsumo-gastua	2,3	2,3	2,2	2,0	2,2	1,7
Etxeen kontsumo-gastua	2,4	2,4	2,3	2,0	2,3	1,7
Adm. publ. kontsumo-gastua	1,9	2,1	2,0	1,9	2,0	1,7
Kapital-eraketa gordina	2,2	2,5	2,8	2,8	2,6	2,5
Barne-eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,1	2,3	1,9
Kanpo-saldoaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,1
Lehen sektorea	2,4	1,0	0,5	-1,0	0,8	-0,1
Industria eta energia	0,6	1,2	1,0	1,7	1,1	1,6
Eraikuntza	2,4	3,1	3,1	2,4	2,7	2,2
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,5	2,2	2,3	1,7
Balio erantsi gordina	1,9	2,1	2,2	2,0	2,1	1,7
Produktuen gaineko zergak	1,9	1,9	1,7	2,2	1,9	2,3
BPG nominala	4,4	4,4	4,6	4,4	4,5	3,8
BPGaren deflatoarea	2,4	2,3	2,4	2,3	2,4	2,0
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,5	1,5	1,4	1,5	1,2
Pertsona okupatuak (BJA)	1,5	1,5	1,4	1,3	1,4	1,0
Langabezia-tasa	7,3	6,8	6,8	6,9	7,0	6,7

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Bai hiruhilekoko kontabilitateko enplegu-datuek, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan (lola) neurtuta, bai landunei buruzko datuek, adierazten dute enpleguaren sorrera moteldu egin dela iazko azken tartetik. Aurreikuspenaren aldian zehar joera horrek jarraitzea aurreikusten da. Horrela, enpleguaren sorrera % 1,5era jaitsiko da 2025ean, lanaldi osoko lanpostu baliokideei dagokienez, eta landunen kopurua, berriz, % 1,4 igoko da, hau da, 15.000 lanpostu inguru eta 14.000 landun gehiago. 2026an, enplegua % 1,2 haziko da lanaldi osoko lanpostu baliokideetan (12.000 enplegu gehiago inguru) eta % 1,0 landunetan (10.000 pertsona baino zertxobait gehiago). Langabezia-tasa, batez beste, lau hamarren murriztuko da 2025ean, % 7,0ra arte, eta urtean zehar maila horren azpitik mantentzea espero da, bai eta 2026an zehar ere. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da gero eta zaharragoa den biztanleria aktiboaren aldaketei lotutako ziurgabetasuna; horren barruan, migrazio-fluxuek eta erregulazioaren arloko aldaketek zeregin erabakigarria dute.

Aurreikuspenak 2025-2026 (I) Urte arteko aldakuntza-tasak




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.


Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak tarteko puntu batean daude, beste erakunde batzuek 2025ean egindako aurreikuspen-sortaren barruan. Eguneratze gutxi egin dira aurreko txostenarekin alderatuta, eta balio maximoak eta minimoak ezartzen zituzten bi erakundeetatik datoz berrikuspenak. BBVAk lau hamarren baxuagoa zen lehen berrikuspen bat egin zuen urtarrilean, % 2,8ko hasierako aurreikuspenaren gainean, eta, martxoan hamarren bat altuago berrikusi badu ere, altuena izaten jarraitzen du (% 2,5). Beheko muturrean, Ceperderen aurreikuspena, aurreko hiruhilekoko baxuena, eguneratu egin da, eta orain % 2,5era igo da. 2026rako, eskuragarri dauden lau aurreikuspen bakarrek handitu egin dituzte aldeak. Orain, Eusko Jaurlaritzaren % 1,8aren eta Ceperdek aurreratzen duen % 2,3aren artean kokatzen dira.

Aurreikuspenak 2025-2026 (I)
Urte arteko aldakuntza-tasak

2025eko aurreikuspenen panela



2026ko aurreikuspenen panela



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza (2025eko martxoa), BBVA (2025eko martxoa), Ceprede (2025eko apirila), Laboral Kutxa (2024ko abendua), Confebask (2024ko abendua), EAEko ganberak (2024ko abendua), Hispalink (2024ko abendua).

Oharra: Dokumentu honetan jasotako aurreikuspen ekonomikoak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak argitaratutako azken estimazioetan eta Eustatek zabaldutako hiru hilekoko kontuen datu berrienetan oinarritzen dira. Datu horiek eskuragarri daude dokumentua egin den egunean (2025eko maiatza).

3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko esparrua 2026ko aurrekonturako

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-politika Ekonomia eta Diru Batasunaren Egonkortasun, Koordinazio eta Gobernantzako Tratututik eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Lege Organikotik datozen aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko arauen mende dago.

Europar Batasuneko aurrekontu-politiken egituraren helburua da estatu-kideen aurrekontu-politikak koordinatzeko eta gainbegiratzeko esparru sendo eta eraginkorra eraikitzea. 2024ko apirilaren amaieran, EBren gobernantza ekonomikorako esparru berri bat onartu zen, azken hamarkadan Batasunaren gobernantza ekonomikoan izandako aldaketetan oinarrituta. Berrikusitako esparru horretan, Europako diru-batasunaren hasierako kontzepzioan egondako akatsen esperientzia aprobetxatu da, eta finantza publiko sendoen printzipio gidaria indartzen saiatu da.

Onartutako erreformak oreka lortu nahi du estatu-kideen zor publikoaren jasangarritasuna bermatzearen eta inbertsioaren eta erreformen bidez hazkunde jasangarri eta integratzailea sustatzearen artean, bereziki trantsizio ekologiko eta digitalak kontuan hartuta. Arau berriek herrialdeen arabera ikuskapen espezifikoa eskaini nahi dute, politika antiziklikoei maniobra-tarte handiagoa eman nahi diete, eta desoreka makroekonomikoei eta egiturazko erronkei aurre egin nahi diete.

Esparru berriak BPGaren % 3ko eta % 60ko defizitaren eta zor publikoaren aurreko atalaseak mantentzen ditu zerga-ikuskapenean, hurrenez hurren, nahiz eta horiek ez diren hain automatikoki aplikatuko, estatu-kide bakoitzaren zerga-egoera indibiduala kontuan hartuta.

Esparru berriaren funtsezko elementua estatu-kideek epe ertainera egindako plan fiskal-estrutural nazionalak dira. Plan horietan, aurrekontu-politikaren arloan dituzten helburuak jasoko dituzte, eta, hala badagokio, doikuntza fiskaleko ibilbide bat ere bai, urte anitzeko gastu garbiaren, aurreikusitako lehentasunezko erreforma eta inbertsioen eta doikuntza fiskaleko aldiaren egon daitezkeen desoreka makroekonomikoak zuzentzeko neurrien arabera adierazita.

Doikuntza fiskalaren ibilbideak espezifikoak izango dira herrialde bakoitzerako, zor publikoaren mailak eta erronka ekonomikoak kontuan hartuta, eta lau urteko (edo bost urteko, dagokion estatu-kidearen legegintzaldiaren ohiko iraupenaren arabera) helburuen arabera formulatuko dira. Ibilbideak bermatu behar du, doikuntza-aldiaren amaieran, zor publikoa beheranzko bide onargarri batean dagoela, edo epe ertainean BPGaren % 60tik beherako zuzentze mailatan mantentzen dela, eta defizitek ez dutela BPGaren % 3ko atalasea gainditzen eta epe ertainean ere portaera horri eusten diotela. Esparru berriak,

halaber, malgutasun-elementu bat sartzen du, halako moldez non doikuntza-ibilbideak mailakatuagoak izan ahalko diren eta hiru urtez luzatu ahalko diren, guztira zazpi urteko mugarekin.

Esparruak malgutasun handiagoa eskaintzen du planak egiteko orduan, eta, aldi berean, haien aplikazioa hobetzen du; izan ere, urteko egoera-txostenak eskatzen ditu, eta gehiegizko defizitaren ondoriozko prozedurak eta zehapenak aldatzen ditu, haien aplikagarritasuna handitzeko.

Europako zerga-arauak malgutzeko prozesuaren ildotik, eta dagoen ziurgabetasun geopolitikoaren testuingurua kontuan hartuta, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, 2025eko apirilaren 10ean egindako bileran, EAEko zorpetze-atalasea malgutzea erabaki zuen, eta, hala, % 15eraino gainditu ahal izango du ekitaldi bakoitzerako adostutako finantza-jasangarritasunaren helburua.

Era berean, erabaki zen ekitaldi jakin batean, salbuespen gisa, atalase hori gainditzeko denean, Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartzen duela behar diren neurriak hartzeko, Espainiako Erresumaren Epe Ertaineko Zerga Plan Estrukturalak estalitako gehieneko epean, haren zorpetze-maila berriro ere atalase horren barruan egon dadin. Horretarako, erreferentzia gisa erabiliko du Espainiako Erresumak Epe Ertaineko Zerga Plan Estrukturalan bere gain hartutako zorra murrizteko ibilbidea, urte bakoitzean egin beharreko murrizketa zehazteko.

Hitzartutako defizitaren eta zorraren azken bidea Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan hartu zen, 2024ko abenduaren 23an. 2024-2027 aldirako adostutako defizit-maila BPGaren % 0,3koa izango da gehienez urtero, eta urteko BPGaren % 13,0ko gehieneko zor-helburua ezarri da.

Era berean, kontuan hartuta lurralde historikoek zeregin erabakigarria dutela enpresek jarduten duten ingurune politiko eta ekonomikoaren definizioan, eta haien eskubide historikoei erreparatuta dagokien eskumenen arabera, foru-aldundientzat defizit-helburu propioak txertatu dira, iraunkortasunez, horrek dakarren ziurtasun eta segurtasun ekonomiko-finantzarioarekin. 2024-27 aldirako adostutako foru-aldundien aurrekontu-egonkortasunaren helburua urteko BPGaren % 0,1ekoa da, eta epe luzerako zorpetzeak koherentea izan beharko du defizit-helburu horrekin.

4. Gobernu-lanaren estrategia eta ardatz nagusiak

2026ko aurrekontuak, Eusko Jaurlaritzaren XIII. legegintzaldiaren lehen urtea igaro ondoren, legegaldi horretarako definitu diren ardatz estrategikoak finkatzeko eta bultzatzeko balio behar du. Aurrekontu horiek lau urteko aldiaren erdian amaituko dira, eta, horrenbestez, legegaldiaren hasieran zehaztutako helburuak betetzen laguntzeko balio behar du.

Illo horretan, aurrekontuak **pertsona guztien bizitza hobetzera**, gure gizarte- eta produkzio-sarearen lehiakortasuna indartzera eta handitzera, eta gizarte berdinzaleagoa eta ekitatiboagoa eraikitzen bideratutako inbertsio estrategikoak bete behar ditu.

Legegintzaldi honetan, zehaztutako ardatzek gure gizartea hobetzea dute helburu, eta, horretarako, **pertsonak** politika publikoen **erdigunean** jartzen dituzte. Horrek esan nahi du prozesu honen xede diren jarduketak guztien helburua dela eremu desberdinetatik zenbait alderdi hobetzea, hala nola osasuna, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, segurtasuna eta gizarte-zerbitzuak.

Bestalde, egoera geopolitikoak ohituta gaituen ziurgabetasun iraunkorreko une honen barruan, **hazkunde ekonomikoaren eta ongizatearen** binomioa landu behar dugu, industria-sareari mesede eginez aberastasuna sor dezan, baina aberastasun hori gizarte osoak partekatu behar duela bereziki zainduz. Gizarte aberatsagoa egin behar dugu kalitatezko enpleguen bidez, zerbitzu publiko sendoak sustatuz, eta berdintasuna eta aberastasunaren banaketa bermatzen duten politikak garatuz.

Duela gutxiko gertaera batzuek erakutsi diguten bezala, Dana eta "itzalaldia" kasu, **eraldaketa energetikoak eta jasangarritasunak** izan behar dute gure jarduketak eta aurrekontuak gidatu behar duten beste ardatzetako bi. Horregatik, gure ahaleginak trantsizio energetiko eta jasangarri baterantz bideratu behar ditugu, EAEko ekoizpen-sektorea koordinatuki eraldatzuz, gure etorkizuna arriskuan jarri gabe.

Hori guztia ezin da egin pertsona guztien arteko bizikidetzan eta errespetuan oinarritutako eredu bat izan gabe. **Bizikidetzaren, memoriaren eta giza eskubideen** ardatzetik heldu behar zaio horri, bizikidetzaren eta kultura demokratikoaren oinarria indartzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, hots, giza eskubideen defentsa –munduko gizarte gisa definitzen gaituena eta bereizten gaituena– helburu argia izan behar da aurrekontuak definitzeko orduan.

Gure eskumen-eremuan eta indarrean dagoen legeriaren barruan, **gure autogobernua hobetzeko** urratsak egin behar ditugu, Gernikako Estatutua betez eta oinarriak lortuz, negoziazioaren bidez estatutu-itun bat egiteko, Eusko Legebiltzarrean ahalik eta adostasun politiko handiena lortuta. Eta, aldi berean, Euskadiren nazioartekotzearen bidez aurkezten zaizkigun etorkizuneko aukerak aprobetxatu behar ditugu.

Testuinguru horretan, aurrekontuak bi abiadura izan behar ditu: bata, epe motzera, gure erronkak betetzeko premia larrienei erantzungo diena eta gure ongizate-ereduari eutsiko diona, eta, bestea, epe luzera, aurrera egin ahal izateko, Euskadi garapen ekonomikoan eta ongizatean Europako eskualde onenen artean kokatze aldera.

5. Aurrekontuen alorreko jarraibideak

Aurreko irizpideak garatzeko, jarraibide espezifiko hauek ezartzen dira 2026ko aurrekonturako:

Lehena: Diru-sarrerak

Diru-sarrerak zehazteari dagokionez, horien kuantifikazioa Finantzen Euskal Kontseiluan ezartzen diren foru-aldundien ekarpenak barne hartuta egingo da, zerga-bilketaren aurreikuspenaren arabera. Gainerako diru-sarrerak sailekin lankidetzan kuantifikatuko dira, eta, azkenik, zorpetzea egiteko, 2026ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloko helburuak hartuko dira kontuan.

Bigarrena: Langileen gastuak

2026ko aurrekonturako langile-gastuak Ogasun eta Finantza Sailak kalkulatu dituzte. Sektore publikoko langileen ordainsarien baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoaren arabera izango dira.

Administrazio orokor eta instituzionaleko eta zuzenbide pribatuaren bitartez zuzenduta dauden erakundeetako funtzionarioen, langile lan-kontratadunen eta behin-behineko langileen aurrekontu-plantillek, irizpide orokor gisa, izaera mugatzailea izango dute, eta 2025eko abenduaren 31n zeuden lanpostuen guztizko erantsia ezin izango da handiagotu.

Hirugarrena: Funtzionamenduko gastuak eta transferentzia korranteak

Administrazio instituzionaleko erakundeentzako transferentziak kalkulatzeko, aurreko ataleko orientazioak hartuko dira kontuan, transferentziok langile-gastuak finantzatzen dituzten zatian.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailek, organismo autonomoek eta gainerako entitateek jarraibide ekonomiko hauetan zerrendatutako erronkei aurre egitera bideratuko dituzte beren gastu-politikak.

Lehentasuna emango zaio eskubide ekonomiko subjektiboetatik eratorritako konpromisoei aurre egiteko kredituen zuzkidurari, bai eta 2025eko abenduaren 31n hartutako eta gauzatu gabeko obligazioei ere, aurreko ekitaldietako gerakinen kargura finantzatzea edo 2026ko aurrekontuan sartzea saihestuz.

Laugarrena: Inbertsio errealak, kapitaleko dirulaguntzak eta finantza-aktiboen aldaketa

Aurreko ekitaldietako betebeharrak dituzten jarduketan kredituak zuzkituko dira. Aipatutako trantsizioei aurre egiteko urte anitzeko plangintzaren barruan egingo da planteamendua.

Bosgarrena: Finantza-gastuak eta finantza-pasiboen txikiagotzea

Zor publikoaren interesen eta amortizazioaren aurrekontua zenbatetsitako kostuaren arabera egingo da.

Seigarrena: Sektore publikoko erakundeak

Ez da aurreikusiko sektore publikoko erakunde berriak sortzerik. Eta beren izaera juridikoa aldatzea ekarri duten edo etorkizunean ekarriko duten eta beren plantilla edo egitura egokitzea ekarriko duten horietan, aurrekontu-eragina aztertu eta analizatuko da.

Índice

1. Presentación.....	4
2. Escenario macroeconómico de Euskadi para 2025-2026	5
Contexto mundial y europeo	5
Situación y perspectivas de la economía vasca en 2025 y 2026	9
3. El marco de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera para el presupuesto 2026.....	13
4. Estrategia y ejes principales de la acción de gobierno	15
5. Directrices presupuestarias	16
Primera: Ingresos	16
Segunda: Gastos de personal	16
Tercera: Gastos de funcionamiento y Transferencias corrientes	16
Cuarta: Inversiones Reales, Subvenciones de Capital y Variación de Activos Financieros.....	17
Quinta: Gastos financieros y Disminución de Pasivos Financieros	17
Sexta: Entidades del Sector Público.....	17

1. Presentación

Las directrices económicas para la elaboración de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, para el año 2026, responden a lo establecido en la Ley de Régimen Presupuestario.

Estas directrices permiten a los Departamentos y centros gestores de gasto comprender el contexto en el que se formulan los presupuestos y proporcionan orientaciones claras sobre el contenido económico que se pretende otorgarles.

El presupuesto refleja la política económica y financiera del gobierno, y está intrínsecamente vinculado a los objetivos y ejes estratégicos del Gobierno, y a los diferentes ámbitos sectoriales en los que se actúa. Desde esta perspectiva, las directrices económicas para la elaboración de los presupuestos son un eslabón esencial en la cadena estrategia-planes-presupuesto.

Por tanto, el documento que contiene las directrices se estructura en cinco secciones. Tras esta breve introducción, la segunda sección presenta el escenario macroeconómico de Euskadi para 2025-2026, en coherencia con los escenarios propuestos para las economías española e internacional. La tercera sección repasa las principales implicaciones del nuevo marco de estabilidad presupuestaria de la Unión Europea en la elaboración del presupuesto de 2026 y la importancia de mantener el rigor presupuestario y aprovechar las herramientas de buen gobierno. La cuarta sección ofrece una descripción de los ejes estratégicos que se han definido para la XIII legislatura del Gobierno Vasco y que deben sentar las bases para el cumplimiento de los objetivos definidos al inicio de la legislatura a través del presupuesto 2026. Finalmente, la quinta sección recoge las directrices presupuestarias técnicas que se deben seguir para la elaboración de los presupuestos.

2. Escenario macroeconómico de Euskadi para 2025-2026

Contexto mundial y europeo

